

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2754

22/2021 DEKRETUA, maiatzaren 7koa, lehendakariarena, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko zenbait kide izendatzeko dena.

Azaroaren 27ko 4/2014 Legearen bitartez, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu zen; lege horren 8.1 artikulua arabera, Zuzendaritza Kontseilua, institutuko presidenteari eta zuzendariaz gain, honako kide hauek osatuko dute:

a) Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren hamalau ordezkari, institutua atxikita dagoen sailak Administrazio goi-kargudunen artean hautatu ondoren izendatuta.

b) Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduko 24.1 artikulua arabera eratutako talde parlamentario bakoitzak hautatutako kide banak.

c) Foru-erakunde hiru ordezkari, foru-aldundi bakoitzak bere diputatu-kontseiluko kideen artean bat hautatu ondoren izendatuta.

d) EAEko udalen hiru ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoan kide gehien dituen udal-elkar-teak alkateen artean hautatu ondoren izendatuta.

e) Hiru kide independentek, memoria sustatzen eta askatasun zibikoak eta bizikidetzaren demokratikoaren printzipioak defendatzen itzal handia duten pertsonen artean Eusko Legebiltzarrak hautatu ondoren izendatuta.

Lege berak, 8.2 artikuluan, agintzen du a) apartatik d) apartatura arte –biak barne– aipatzen diren Zuzendaritza Kontseiluko kideek beren izaerari eutsiko diotela bakoitzak bere instituzioa izaten jarraitu behar duela baldintza betetzen duten bitartean, salbu eta hautaketa egiteko eskumena duen organoak ordezteko erabakitzen badu.

Lehendakariaren martxoaren 2ko 5/2020 Dekretuaren bidez, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza Kontseiluko zenbait kide aldatu ziren, zehazki, EAEko udalerrien ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria, eta karguan jarraitu zuten Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien ordezkariak, Lehendakariaren irailaren 29ko 23/2015 Dekretuaren bidez izendatutakoak.

XII. legegintzaldia hasi ondoren, Lehendakariaren abenduaren 2ko 43/2020 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkariak eta azaroaren 27ko 4/2014 Legearen 8.1 artikuluko b) apartatuan aipatzen diren legebiltzar-taldeak hautatutako kideak izendatu ziren, eta izendatu gabe geratu ziren Legebiltzarrak, azaroaren 27ko 4/2014 Legearen 8.1 artikuluko e) apartatuan aipatutakoari jarraikiz, hautatu beharreko kide independenteak.

Geroago, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeak, 2020ko abenduaren 15ean eta 2021eko maiatzaren 6an egindako bileretan, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza Kontseiluko kide independenteak izendatu zituen.

EUDELek ere kide bat aldatu du EAEko udalerriak ordezkatzeko Lehendakariaren martxoaren 2ko 5/2020 Dekretuaren bidez izendatutako ordezkarietan.

Beraz, bidezkoa da izendapen berri hauek egitea.

2021eko maiatzaren 14a, ostirala

Ondorioz, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kide izendatzea honako hauek:

1.– Eusko Legebiltzarrak hautatutako kide independenteak:

Francisco de Asis Etxeberria Gabilondo jauna.

Maria Jauregui Lasa andrea.

Jesús María Elespe Pelaz jauna.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien ordezkari gisa:

Ander Añibarro Maestre jauna, Laudioko alkatea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek dekretuan ezarritako dataren egunetik aurrera izango ditu ondorioak, nahiz eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian beste egun baten argitaratu.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.